



Zuhaitz beterano baten kanpoaldean begiz ikus daitezkeen hainbat mikrohabitaten marrazki eskematikoa (horiek erabiltzen dituzten organismo batzuk izendatzen dira).

1. **Zur hila adarretan.** Zur iharra eta eguzkiak gogortua. *Cerambicidae* motako kakalardoak.
2. **Hutsune txikiak adaburuaren goiko aldeko adarretan.** Usteldura zulo lehorrak. – Txori habiak, saguzarren lo egiteko tokiak, ezagunak gernu zikinengatik. Litzortzarren habiak (*Vespidae*).
3. **Hutsune handiak adaburuko adarretan.** Usteldura arrea. *Therevidae* motako euliak, kakalardo elateridoak (adib. *Ampedus cardinalis*, *Elateridae*), kakalardo tenebrionidoak (*Tenebrionidae*), hontza zuriak.
4. **Adarren gaineko “onddoen infekzioa edo hedadura” eremuak.** – *Xylophagidae* motako euli xilofagoak, sasi-marigorringoak (*Endomychus coccineus*).
5. **Motzondoa edo adar-aldaxka¹.** Arrautzak erruteko eta onddoentzako azalera zabala.– *Pyrochroa serraticornis* kakalardoa eta oro har *Pyrochroidae*.
6. **Azalaren gaineko “onddoen infekzioa edo hedadura” eremuak.** – *Pyrochroa serraticornis* kakalardoa, sasi-marigorringoak eta *Xylophagidae* motako euli xilofagoak.
7. **Dilindan dagon adar hautsia.** Puskatutako muturra oso egokia da arrautzak erruteko eta onddoen sarbiderako.
8. **Azala barruan duen urkila ahuldua.** – Txori habiak, katagorriak, kakaraldo alderraiak (*Staphylinidae*) eta mikrositsak (*Lepidoptera*).
9. **Usteldura-zulo batean metatutako ura.** – *Syrphidae* motako euliak eta uretako kakalardoak.
10. **Izerdi jario iraunkorra.** –(*Nitidulidae*), sirfidoak eta onddoetako eltxoak edo eulitxo (*Sciaridae*).
11. **Zauri zaharren ebakiondoak.** Ebakiondoen ehuna eta azal askatua eta kaltetua.– Azaleko kakalardoak (*Scolytidae*), sasi-eskorpioiak (*Pseudoscorpionida*) eta armiarmak (*Araneae*).
12. **Erlaitzean edo apalean dauden onddoak (ardagaia bezala).** Barne usteldurak zura prest uzten onogabeentzat.- Eulitxo beltzak (*Sciaridae*), onddoetako kakalardo distiratsuak (*Staphylinidae*).
13. **Adar batean egindako arraidura.** – Kakalardo elateridoak eta nitidulidoak.
14. **Adar nagusi bat hausten.** Hausturak eragin dezake motzondo arrakalatu baten habitat bat.
15. **Eroritako adarra.** Eroritako zur hilaren habitata: utzi itzalpe partzial batean.
16. **Tximista zauria.** Zur errea.- Azaleko zimitzak (*Aradidae*), sasi-gurgurioak (*Salpingidae*), ke euliak (*Microsania*).
17. **Sustraien kolonizazio fungikoa.** Azala soltea eta kaltetua. – Azaleko kakalardoak (*Scolytidae*), sasi-eskorpioiak eta. Armiarmak.
18. **Hutsune basala.** Hustutako enborra. – *Pyrochroa serraticornis* kakalardoa, arkanbele txikia (*Dorcus parallelipedus*, *Lucanidae*), tipulak (*Tipulidae*, *Diptera*).
19. **Usteldura zuloa enborrean.** Ehundura leuneko usteldura zuria. - arkanbele txikia, errinozero kakalardoa (adib. *Oryctes nasicornis*, *Dynastinae*).
20. **Artzaintzak kaltetutako azaleko sustraiak.** Ehundura leuneko usteldura zuria. - Arkanbelea (*Lucanus cervus*), errinozero kakalardoa.

¹Itzultzailearen oharra.: Gaztelaniazko literatura espezializatuan “aldaxka-adarra” adierazteko (estaca) ingelesaren terminoa erabiltzea ohiko da: snag.